

LURRALDEAREN DEFENTZARAKO KOMUNIKAZIOA

2023ko Nazioarteko
Komunikatzaileen Topagunea

lumatik
HERRIAK



**TXOSTENA : LURRALDEAREN DEFENTZARAKO KOMUNIKAZIOA. 2023ko
Nazioarteko Komunikatzaileen Topagunea**

KOORDINAZIOA:

Lumaltik Herriak

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Marina Gallardo Izquierdo

ILUSTRAZIOA:

Beatriz Aparicio

COLLAGE:

Marina Gallardo Izquierdo

ARGAZKIAK:

Carlos Cano eta Lumaltik Herriak elkartearen artxiboa

ITZULPENA:

Joseba Urrutikoetxea

FINANTZIAZIOA:

Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo

2023ko abendua

Lumaltik

H E R R I A K



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

Defensoras

Oihartzun Taldea

AURKIBIDEA



01.

Lurraldeen
defentsarako
komunikazioa

02.

Jardunaldietan
parte hartu duten
komunikatzaileak
eta lurraldearen
defendatzaileak

03.

Topaguneetan
sortutako hausnarketa
eta gogoetak

04.

Kontakizun grafikoa
Hika Ateneon Topaketa
(Bilbon, 2023ko urrian)

05.

Eskerrak

LURRALDEEN DEFENTSARAKO KOMUNIKAZIOA

Gure eskubideen aldeko komunikazio baten bila

Komunikazio hegemonikoak, hedabide korporatiboen bitartez, araua osatzen duten eta zapalkuntzen sistemaren parte diren gizarte-aginduak transmititzen eta erreproduzitzen ditu. Horrela, indarkeria eta pertsonen eta lurraldeen eskubideen urraketa naturalizatzen dituzte, eta subjektu politikoen eragiletasuna ezkutatzen dute. Izan ere, komunikazio hura indarkeria sinbolikoko mekanismo bat da berez, eta familia, komunitate eta gizarte eremuetan menpekotasun-harremanak eta indarkeria sustatzen ditu.

Hortaz, premiazko da diskurtsoak aldatzea, beste narratiba batzuk sortzea eta imajinario kolektiboak eratzeke mekanismoen jabe egitea; askotariko zapalkuntzen sistema mantentzen duten ideiak deuseztatzeke, eta gure aniztasunaren eta zeharkatzen gaituzten errealitateen inguruan ikuspegi zabala izateke. Baina horretarako komunikazio eskubidea segurtasun, justizia, askatasun eta egonkortasun baldintzetan bermatzeko borrokatu behar dugu.

Segurtasun politiko, juridiko eta sozialik gabeko testuinguru batean, eta Estatuak irrati komunitario eta alternatiboen aurkakoak direla eta oztopoak jartzen dizkietela kontuan hartuta, funtsezkoa da komunikazioa itxaropenetik eta alaitasunaren defentsatik sustatzea. Komunikazio hura genero-justiziarekin eta ingurumen-justiziarekin konprometitu behar da, eta antirrazista, antikapitalista eta antipatriarkala izan behar

da. Halaber, komunikazio hura prozesu eta bizi-proiektu gisa pentsatu behar dugu; izan ere, ez da salaketara soilik bideratzen; herritik eta herriarentzat egindako komunikazioa da; kontuan hartzen du ez gaudela bakarrik, beste lagun eta hedabide asko daudela borroka berean; badaki pertsona guztiek egin dezaketela komunikazioa; komunikazioa guztiontzat dela, subjektu indibidual eta kolektiboentzat, herrientzat eta/edo beren autonomia, kultura eta nortasuna defendatzen duten taldeentzat. Azken finean, komunikazio anitza, askea eta kritikoa da.

Komunikazioa tresna oso garrantzitsua dugu ahalduentzeko. Botere korporatiboek mezu eraldatzaileak isilarazten dituen mundu honetan, komunikazio alternatiboa egitea ekintza erabat iraultzailea bilakatu da.

Komunikazio alternatiboaren esparruan, komunikazioa gizarte eraldaketarako tresna politikoa da. Komunikazio feministak eta antirrazistak patriarkatua eta arrazakeria ezabatu nahi ditu, errealitatearen ikuspegi kritiko bat sortzen lagundu nahi du eta isilarazitako gaiak eta ahotsak berreskuratu eta landu nahi ditu. Horretarako, praktika kolektibo eta demokratikotik sortzen da.

Komunikazio komunitarioa erresistentzia da. Hain zuzen, boterea esku gutxitan biltzen duten eta herriak zapaltzen dituzten komunikazio hegemonikoei aurre egiten dion proposamena da, kultura, arte eta sormen adierazpen oro onartzen dituen.

Esperientziak partekatzeko espazioak sortzen

Lumaltik Herriak eta munduko hainbat tokitan bizi diren gure lagunak, komunikazioaren demokratizazioaren aldeko apustua egiten dugu. Komunikazioa errealitateak aldatzeko funtsezko tresna bihurtzen duten kolektibo eta herrik laguntzen ditugu.

Apustu hori gure lankidetzaren proiektuetan islatzen da, baita Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren esparruan ere. Hala, 2021. urtearen amaieratik, “Defendatzaileak setio mediatikoa hausten: komunikazio feminista eraikitzen lurraldearen defentsarako” proiektua gauzatzen ari gara.

2023an, Abya Yalatik eta espainiar estatuko hainbat txokotatik etorri zaizkigu bisitan. Matxismoaren eta arrazismoaren, errepresioaren eta isilarazteko erasoei aurre egin behar diete, egunero. Konpromiso sozial batetik abiatuta, komunitateen eta

gizarte mugimenduen zerbitzura dagoen komunikazioa egiten dutenak, alegia.

Nahi dugun komunikazio ereduari buruz taldean hausnartzeko, bi espazio sortu ditugu: maiatzean Gasteizko Emakumeen Etxean eta urrian Bilboko Hika Ateneoan.

Topaketa horietan, lurralde ezberdinetatik gorputzen, emakumeen eta herrien bizitza eta autonomia defendatzeko komunikazio sozial alternatiboa lantzen duten erakundeen esperientziak ezagutu ditugu. Komunikazio feminista, arrazismoaren aurkakoa eta ikuspegi ekologikoarekin nola eraiki dezakegun aztertu dugu, Ongi Bizitze ereduaren aldeko apustu horretan Aurrera egiteko.

Txosten honetan, jarduera horietan partekatutako zenbait gogoeta berreskuratuko ditugu.





GASTEIZ






BILBAO



Jardunaldietan parte hartu duten komunikatzaileak eta lurraldearen defendatzaileak



**BESSI
ELISABETH
RAMÍREZ
EL SALVADOR**

Sonsonateko (El Salvador) departamentuko komunikatzaile komunitarioa. 2015az geroztik, Radio Sensunateko kazetaria da, eta podcast-ak, programen ekoizpena eta kazetaritza-oharrak argitaratu eta ekoitzi ditu.

Kazetari lanaren barruan, ingurumenarekin, komunitate indigenekin, emakumeekin eta lurraldearen defentsarekin lotutako gaiak landu ditu, besteak beste. Bere burua komunitate indigenako kide eta ondasun komunen defendatzaile gisa aldarrikatzen ditu.



**REBECA
NGUISSANI
KIKUMBA
EUSKAL HERRIA**

Kazetari afrofeminista eta Euskal Herriko arrazakeriaren kontrako kolektiboetako kidea.



**MARINA
GALLARDO
IZQUIERDO
EUSKAL HERRIA**

Komunikatzaile soziala, argazkilaria eta dokumental egilea.

ALMA MONTALVÁN GUATEMALA

Ama kaqchikel eta aita quiche dituen emakume maia naiz. 1991. urtean jaio nintzen, nire haurtzaroa eta nire nerabezaroaren zati bat Guatemalako sail batean bizi izan nituen. Irakasle ikasketak egin nituen hirian, eta beste errealitate bat ezagutu nuen bertan, arrazismoz eta bereizkeriaz bete. Unibertsitatean

artearen bidez sendatzeko prozesuetan murgildu nintzen. Gaur egun, zirku artista naiz, eta Festivales Solidarios taldeko kidea naiz. Guatemalan gertatzen den Giza Eskubideen aurkako neurrigabeko indarkeriaren aurkako borrokak eta erresistentziak ikusarazi eta lagundu nahi



FERNANDA BETANCOURTH “BETAN” HONDURAS

Fernanda Betancourt, “Betan” ezizenez ezaguna, Tegucigalpatik (Honduras) datorren artista plastikoa, ilustratzailea eta muralista da. 2014az geroztik, Betanek ibilbide profesionala sortu du artista gisa espazio publikoetan arituz.

2013an Arte Eder ikasketak amaitu zituen Eskola Nazionalean. Bere ikuspegi plastikoa feminitatearen irudikapena nabarmendu zen bere estetikan, irudimenezko hori mihise eta hormetara transmititzeko aukera emanez.

Betan arte plastikoetako irakasle gisa aritu da hainbat erakundetan, artea eta giza eskubideak garatzeko aliantzak eginez, genero-indarkeriaren aurkako artea, alegia.

Betan Colectivo Culturas Vivas kolektiboko kide eta sortzailetariko bat da. Proiektu honen bidez, Honduraseko herri indigenen sustrai afro eta ez-kulturalak aldarrikatu nahi ditu, memoria historikoa berreskuratu eta antolatzeko garrantzia eta beharra erakutsiz. Kasu honetan, espazio marjinatuak edota ahaztuak berreskuratuz, espazio politiko komunitarioko parte izateko sortzen lagunduz eta, aldi berean, artearen bidez balio estetikoak emanez.



Mugimendu feministaren eta emakumeen aldeko aktibista. Filologian lizentziatua, Habanako Unibertsitatean.

La Cuerda elkarte feministaren eta haren kontseilu editorialaren parte da; El Periódico egunkarian kazetari lanean aritzen da. Hainbat erakunde feministetan (Guatemalan bertan, Latinoamerikako beste herrialde batzuetan eta Euskal Autonomia Erkidegoan) aritu da sexualitatearen inguruko ikerketa lanetan: gerra garaian maia herriko emakumeen aurkako sexu indarkeriaren kasuetarako justizia, emakumeen aurkako indarkeria, emakumeak eta migrazioa, Nebaj emakume gazteentzako espazio seguruak (Quiché), sexualitateak eta Ongi Bizitze ereduak.



Emakume anitza naiz, lurraldearen defendatzailea eta feminista komunitarioa, eta gizarte langilea. Mesa Grande errefuxiatu kanpamenduan jaio nintzen, Hondurasen. Santa Marta komunitatearen, El Salvadorren, borroka historikoaren oinarria naiz. Duela urte batzuk, sanazio kolektiboan hasteko erabakia hartu nuen, bizitza eta eraldaketa proposamen gisa. Genero eta ingurumen justizian sinesten dut, herrialde baten egiturazko eraldaketetarako apustu estrategiko gisa. El Salvadorreko Giza Eskubideen Defentsarako Sareko kidea naiz. ADESPko Lidergo, Antolaketa eta Eragin Taldeko kidea, eta Santa Martako Nueva Heroica Kooperatibako kidea ere. Kooperatiba horrek erkidegoko lurra babesten du, eta Santa Martaren proiektu politikoaren oinarria da.



Jun Na'oj komunikatzaile indigenen sareko eta Guatemalako Irrati Eskoletako Federazioko (FGER) kidea naiz, maia komunikatzailea, foto kazetaria, irrati-ekoizlea, Latido Indigena irratsaioko Guatemala osorako korrespontsala da, Quiton (Ekuador) ekoizten den programa.

Mikrofonoak hartzen ditut nireak diren lurraldeak defendatzeko: gorputza, lurra, oroimena, hitza eta poza. Nahiz eta nire ahots zezeldu, hitz egiten jarraituko dudala argi daukat. Komunikazioaren eta argazkiaren bidez, arrazismoa, patriarkatua, indarkeriaren normalizazioa, bizitzaren aurkako proiektu transnazionalak eta herri indigenen borrokak deslegitimatu nahi dituen gobernua agerian utzi nahi ditut, baina baita kolektibitate sortzen diren proposamen eraldatzaileak eta pluralak erakusteko ere. Alaitasuna, maitasuna, samurtasuna, amorrua eta errebeldia nire lubaki pertsonal gisa hartu ditut.

Duela 25 urtetik Giza Eskubideen defendatzailea da, eta Fray Bartolomé de Las Casas Giza Eskubideen Zentroko kidea da. Fray Bartolomé herri eta komunitate indigenen, nekazarien eta mestizoen laguntzailea da, eta heriotza eta hustutze politiken aurrean bizitza eta lurraldea defendatzen ditu.

”Defendatzaile gisa, emakumeok gure eskubideak erabili, sustatu eta defendatzen ditugun mugimenduaren parte naiz, gizarte baketsu bidezkoago eta duinago bat bultzatuz”.





M. ÁNGELES FERNÁNDEZ EUSKAL HERRIA

M. Ángeles kazetaria da, eta Pikara Magazineren koordinazio taldeko kide da 2016. urtetik, nahiz eta 2010. urtean aldizkaria sortu zenetik lankide gisa aritu. Freelance gisa ere lan egiten du, batez ere, erauzketan, lurraldearen defentsan, lurraldearen eta uraren kudeaketan.

Argazkia: J. Marcos

MIRIAM NAJIBI GOÑI EUSKAL HERRIA

Kazetaritzan graduatua eta Multimedia Kazetaritzako masterra egin du. Hainbat medio tradizional eta alternatibotan lan egin du. Ikertzailea da eta doktoretza du EHuko Kazetaritza Sailean, eta palestinarren eta israeldarren arteko gatazkaren inguruan sortutako ikus-entzunezko narrazio informatiboak aztertzen ditu. Pikara Magazine aldizkarian lan egiten du puntualki, eta Hordagoko edizio taldeko kide da.



EVELYN MORALES EUSKAL HERRIA



Aktibista feminista, dekoloniala eta arrazismoaren aurkakoa, eta Gizarte Integrazioan, Lan Harremanetan eta Giza Baliabideetan eta generoari eta immigrazioari buruzko prestakuntzan dihardu. Gaur egun, Ecuador Etxearen plataforma birtualen eta ikuspegi feminista duten garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntza proiektuen arduraduna da.

Ecuador Etxea erakunde eta hedabide birtual alternatiboa da, arrazismoaren eta feminismoaren aurkakoa. Kulturartekotasunaren, komunikazioaren eta gizarte eraldatzeko hezkuntzaren esparruan lan egiten dute, mobilizazio sozialak bultzatuz. Euskal Herriko eta Ekuadorreko erakunde eta kolektiboekin ere aritzen da lanean. Erreportaje, argazki erreportaje eta bideoen bidez, beste komunikazio modu baten alde egiten dute. Helburu nagusia ikus-entzunezko memoria kolektiboa eta herrikoia komunikatzea eta sortzea da, erresistentziako beste ikuspegi eta narrazio batzuk idaztea ahalbidetuko duena.



SUYÉN MARTÍNEZ NICARAGUA

Nikaraguarra eta komunikatzailea feminista da, generoan eta haurtzaroko eskubideetan espezializatua. Haurtzaroaren eta nerabezaroaren eskubideak sustatzen zituzten telebista eta irrati programetarako ekoizle gisa lan egin du. Sektore pribatuan ere lan egin du komunikazio eta harreman publikoetako aholkulari gisa. Genero berdintasunarekin konprometituta, komunikazioa gizarte aldaketa sustatzeko tresna gisan duen ahalmenean sinisten du.

Argazkia: calala.org



TOPAGUNEETAN SORTUTAKO HAUSNARKETA ETA GOGOETAK

“Bizitza eta lurraldea defendatzeko komunikazio feminista eta arrazakeriaren aurkako” Nazioarteko Jardunaldiak.

Gasteizko Emakumeen Etxea. 2023ko maiatzak 26.

“Komunikazioaren bidez, mugimendu feministaren eta beste borroka batzuen aliatuak izan gaitezke.”

Evelyn Morales

“Gure lan taldeak gero eta osasuntsuagoak, seguruagoak eta eraginkorragoak izatea nahi dugu. Gure taldearen baitan antirrazismoa ez zela aukerakoa erabaki genuen.”

Suyén Martínez



"Giza Eskubideen defentsa ezin izango litzateke mantendu biziraun duten kideen hitzik gabe, beren iritzitik. Giza Eskubideen defentsak kolektiboa izan behar du, eta erasoetatik bizirik atera diren etatik bertatik. Komunikazioaren alde egiten dugu, bizirik dirautenen hitza oinarri gisa erabiliz."

Rosy Rodríguez

"Komunikazioa subjektu politiko feminista eraikitze bidea da."

Maya Alvarado

"Komunikazioa herrien eskubidea da, eta, aldi berean, botere tresna ere bada. Komunikazio hegemonikoak bizitza asko uzten ditu kanpoan, eta errealitatearen irakurketa partziala egiten du. Baina sistema horretan hutsuneak ere badaude."

María Ángeles Fernández

"El Salvadorren kasuan, esaterako, adierazpen eta prentsa askatasunaren urraketa testuinguru basatian, itxaropenetik edo minetik komunika gaitezke. Nik ez dut komunitatearen ahotsa ordezkatzeko, komunitateek mikrofonoa har dezaten lan egiten dut."

Marta Rivas

"Hitza da defendatu beharreko lehen lurraldea, errealitateak aldatzera eramane gaitezkeelako. Badira komunikatzeko beste modu batzuk ere, herrien mundu ikuskeratik soilik ulertzen direnak, eta guretzat hori politikoa da. Gure narrazioak desberdinak eta beharrezkoak dira. Komunikazio honek itxaropena ere komunikatzea nahi dugu, gure lurraldeetan sortzen ari den guztia garrantzitsua da."

Ángela Cuc

"Hedabide hegemonikoak etsai-giroak izan daitezke emakume gazteentzat; medio alternatiboetatik espazio seguruak eraikitzen ari dira."

Miriam Najibi Goñi

"Narratiba bakarra, zuria, zishetero eta arrazista da nagusi, diskurtsoa pobretu eta gorrotozko diskurtsoa handitzen duena. Desberdinkerian eta bazterketan oinarritutako diskurtsoa da, alegia. Gaur egungo narrazio esparrua, ohiko komunikabide artean, arbuioa, gorrotoa, paternalismoa eta asistentzialismoa dira. Arrazializatutako pertsonak eta migratuak askotarikoak eta heterogeneoak gara, narratiba hegemoniko bakar hori eta diskurtso mota horiek elikatzen dituzten estereotipo murriztaileak saihestu behar ditugu."

Rebeca Nguissani

“KOMUNIKAZIO FEMINISTA ETA ANTIRRAZISTA BIZITZA ETA LURRALDEA DEFENDATZEKO” JARDUNALDIETAKO AMAIERAKO ADIERAZPENA

**Gasteiz
2023ko maiatza**

Komunikazioa herrien eskubidea da, eta boterearen tresna ere.

Hala ere, Rosyren arabera, herrien hitza subsumitua egon da denbora luzez. Komunikazio hegemonikoak bizitza asko uzten ditu kanpoan, eta errealitatearen analisi partzial bat egiten du. Hala, emakume adiskideek adierazpen askatasunaren urraketak partekatu dituzte gurekin; Erdialdeko Amerikako hedabide eta komunikatzaile alternatibo edo komunitarioaren aurkako mespretxuak, jazarpena eta kriminalizazioa, erbestera ere bultzatzen ditzakeena. Indarkeria hura bereziki bortitza da emakumeekin eta sexu-disidenteeekin, eta are bortitzagoa emakume indigena eta arrazializatuekin eta komunitateetako adiskideekin.

Gaurko egunean zehar frogatu dugun bezala, arrakalak daude sistema horretan.

Rebecak honako hau galdetu digu gaur goizean: “Ba al dago komunikazio antirrazistarik Espainiako estatuan?”. Kolektibo askoren lana ikusita, baiezkoan egon gaitezke, baina eguneroko komunikazioari erreparatzen badiogu, ikuspegia atsekabegarria da.

Testuinguru horren aurrean, goizean honi buruz aritu gara: zer inplikazio ditu feminismoaren edo antirrazismoaren gainean etengabe hezteko energiari ez izatea. Heztea emozionalki astuna da. Hala, arrazakeria zer den etengabe hausnartzeaz eta horrek eragiten duen nekeaz eztabaidatu dugu.

Pertsona zuri gisa, gure burua birpentsatu behar dugu eta gure burua hezteko tresnak bilatu behar ditugu. Antirrazismoan, kontzientziaz harago, ekin beharra dago.

Suyének komentatu digu Calala erakundean haien antolakuntza kultura ebaluatu dutela eta erabaki dutela taldearen barruan antirrazismoa ez dela aukerazko kontu bat.

Gure ustez, egiten duguna zalantzan jartzen jarraitzeko ardura dugu. Gure burua zalantzan jarri behar dugu, ez soilik nola informatzen dugun eta informatzen garen, baizik eta kazetaritzan nola jarduten dugun ere.

Maria Ángelesek komentatu digu nola Pikaran barne hausnarketa bat egiten ari diren, feminismoa titularrean soilik ez uzteko; pentsatzea, erakunde gisa: “Nor uzten ari gara gu kanpoan?”

Galdera horiek egin nahi dizkiogu gure buruari, eraldaketarekin eta gauzak beste modu batera egitearekin konprometituta gaudelako. Garrantzitsua iruditzen zaigu gure istorioak gure narratibetatik kontatzea.

La Cuerdako adiskideek bideoan esaten zuten bezala: “Komunikazioa subjektu politiko feminista eraikitze bide bat da”. Evelynek kontatu digu komunikaziotik gizarte mugimenduak lagun ditzakegula, komunikazioa gizarte-eraldaketaren zerbitzura jar dezakegula. Martak komentatu digu irratiko komunitarioak tresna bat direla komunitateentzat. Angelak, Miriamek eta Rebecak tokian sortutako narratiba propioen garrantziaz hitz egin digute. Jun Na’oj edo Pikararen esperientziek erakutsi digute agendetan sartu behar ditugula emakumeen eta identitate anitzen intereseko gaiak, eragiten dizkiguten istorioak.

Ikusi dugu gure erronketako bat sentsibilizatu gabeko edo konbentzitu gabeko pertsonengana heltzea dela, eta horretarako

estrategia bat izan daitekeela hedabide digitaletara sartzea eta horiek bereganatzea. Sare sozialak, beraz, aukera bat dira; dauden tresna digitalak berreskuratzeko modua bilatu behar dugu. Alabaina, horretarako dedikazioa behar da eta etengabe eguneratu behar dugu, eta horrek frustrazioa sor dezake eta indarkeria berrien aurrean koka gaitzake.

Minari buruz hitz egin behar dugu, baina hura ezin da gure ibilgailua izan. Pozak ere komunikatzea garrantzitsua da, gure borroka itxaropenetik eta indarretik komunikatu behar dugu.

Azkenik, aldarrikatu nahi dugu kolektiboak energia ematen digula, indarrez, amorruez eta errebeldia alaiatz betetzen gaituela patriarkatuaren, arrazakeriaren eta kapitalismoaren aurka borrokatzen jarraitzeko. Mayak esan duen bezala, haiek dute boterea, hedabideak, baina guk gure burugogortasuna, ez isiltzeko erabaki politikoa. Gure deia honako hau da: isilik ez geratzea.

Jun Naój kolektiboko adiskideen hitzetan: “Beste emakume batzuekin elkartzeak gehiago indartzen gaitu. Beldur bagara ere, argi esaten dugu ez dituztela gure ahotsak isilaraziko”.



“Hesi mediatikoa hautsiz. Komunikazio alternatiboari buruzko esperientziak”

Bilboko Hika Ateneo. 2023ko urriak 26.

“Komunikazio komunitarioan, eman eta jaso egiten dugu, komunitateentzako konponbideak bilatzen ditugu, komunitateek erabakiak hartzeko duten gaitasuna sustatzen dugu. Komunikazioak erresistentzia duina egiten duenean eta botere politikoak zalantzan jartzen dituenean, kriminalizatu egiten da. Elkarrekin bat egin eta estrategiak sortu behar ditugu, dagokigunetik baztertu gaituen horri, hitzerako eskubideari alegia, aurre egiteko. Ez izan beldurrik, matxinadatik komunikatzen jarrai dezagun.”

Bessi Ramírez

“Historia beste batzuek kontatu izan dígute beti. Guk gorputzaren bidez komunikatzen dugu. Prozesuek emozioak sortzen dituzte gorputzean. Festibales Solidarios kolektiboarekin artea erabiltzen dugu erresistentzian bizi diren komunitateei akonpainamendua egiteko. Heriotzaren testuinguruaren aurrean, bizirik mantentzen gara.”

Alma Montalván



“Argazkia lagun sentitzea da. Ingurunea hautematen laguntzen du, eta konektatuta gauden errealitatearen ikuspegi bat osatzen du.”

Marina Gallardo

“Adierazpen artistikoek informatzen, partekatzen eta taldearen parte sentitzen laguntzen dígute. Artea borrokak eta sendatzeko mekanismo bat islatzeko tresna da. Egin diezaiogun apustu arteari, komunikazioari, komunitateen ikuspegiéi.”

Fernanda Betancourt. Betan



HESI MEDIATIKOA HAUTSIZ

LUMALTIK HERRIAK

TAULA 1	TAULA 2
KOMUNIKAZIOA HERRIEN ETA GIZARTE-MUGIMENDUEN ZERBITZURA	ARTEA: KOMUNIKAZIO KONTRAHEGEMONIKO TRESNA

Beste komunikazio eredu baten beharra dugu

GUATEMALAN EDO GAZAN GERTATZEN ARI DENAREN BERRI EMATERA ANIMATZEN ZAITUZTEGU



Juana Canga

JUN NA'OJ KOMUNIKATZAILE INDIGENEN SAREA

Bideoa ▶

Sareak indartu egiten gaitu!

ESTIGMATIZAZIOARI ETA DISKRIMINAZIOARI AURRE EGITEN DIEGU

Lurraldea eta gure gorputzak defendatzak ditugu!

JUN NA'OJ mila hizkuntzan aritzen diren komunikatzaileen sarea da

Gure hizkuntza hitz egiten dugu Informazioa gure herrietara irits dadin

HERRIEN IKUSPEGITIK KOMUNIKATZEA GURE LURRALDEETARAKO



HESI MEDIATIKOA HAUTSIZ

KOMUNIKAZIOA HERRIEN ETA GIZARTE-MUGIMENDUEN ZERBITZURA

Komunikazio hegemonikoaren kontrako kritika feminista eta antiarrazista



Rebecca Nguissani Kikumba

Gaur egun mainstream komunikazioa arrazista da

BLACK FACE KONZEPТУAREN NORMALIZAZIOA TELEBISTAN



Titularren arteko bereizketa lehen eta bigarren mailako herritarren artean

Etorkin batek gizon bat salbatu du

Vinicius, Real Madrilko jokalaria, iraildu egin dute



Zer da nagusi komunikabideetan?

MINAREN NARRAZIOA Hego Globaletik datorren istorioetan morboa bilatzen da

ETORRIKONAZIONALISMOA Immigrazioa + Sentsazionalismoa. Inoiz ez gara bizilagunak, ez gauda eguneroko bizitzan

DISKURTUAREN ERDINGUNA Pertsona migratzaileen bazterketa, desberdinkeria.

SALBUESPENAREN NARRAZIOA Soilik heroiak bagara agertuko gara

Zer egin dezakegu komunikabideetan lan egiten dugunok?

ESTEREOTIPO ETA MARKO ERREDUKZIONISTAK SAHESTEA Eguneroko bizitzari pertsona arrazializatutak eta migratzaileak gehitzea.

INFORMAZIOAREN ITURRIAK ETA PROTAGONISTAK OIBERTSIFIKATzea Migratzaileek migrazio prozesuetan baino gehiago dakite

SALBUESPENAREN DISKURTUA SAHESTEA

EZ JARRI BELTZ BAT ZURE ALBISTEAN Zure arrazakeria ez nabaritzea.

SENTSIZIONALISMOA EZ ELIKATzea

Egungo narrazio esparrua

baztertzea gorrotoa paternalismo sentsazionalismo


Nola aldatuko dugu ?

NARRAZIO BERRIAK

EZTABAIDAREN ESPARRUA ALDATZEA

EMAKUMEAK VS. GU? DISKURTUA SAHESTEA

ANTZEZPENA Migratzaileak zarenan beti heldu berri gisa hartuko zaituzte, nahiz eta urte asko daramatzazun hemen





HESI MEDIATIKOA HAUTSIZ

KOMUNIKAZIOA HERRIEN ETA GIZARTE-MUGIMENDUEN ZERBITZURA
Irrati komunitarioen esperientziak El Salvadorren



HESI MEDIATIKOA HAUTSIZ

KOMUNIKAZIOA HERRIEN ETA GIZARTE-MUGIMENDUEN ZERBITZURA
Lurraldeak defendatzeko arrazismo eta patriarkatuaren aurkako komunikaziorako gidaren aurkezpena





HESI MEDIATIKOA HAUTSIZ

ARTEA: KOMUNIKAZIO KONTRAHEGEMONIKO TRESNA
Erresistentzia komunitarioari laguntzea artea erabiliz

Guatemalan jalo zen
2012an, Totonicapánen
Alaskako sarraskiaren
ondoren

**FESTIVALES
SOLIDARIOS**

Gorputzaren
bidez
komunikatzen



ARTEA ZANAGUSIDUTU

Bizitzaren eta
lurraldearen
defendatzailerak
defendatzeko
presio politikoa

Memoria historikoa

Lurraldearen
defentsa

beste batzuek
kontatu ohi dute
historia



GURE GORPUTZAREKIN
KONEKTATUKO GARA

TEKNOLOGIAK MENPERATZEN GAITUEN GARAI
HONETAN, ZENBAT DENBORA HARTZEN DUT NIRE
GORPUTZARENTZAT?



Begiak itxi
orainaldira
etortzeko

Arnastu, nire
gorputzean
energia nola
pizten den
sentituz

Oinak sustraitzea, barnean
sentitzen dudan
energiarekin konektatzeko



Lurraldea defendatzeko
prestakuntza politikoa dago

Jaialdiak eta tailerrak
egiten ditugu



Artearen bidez
erresistentzia bizi
diren komunitateak
laguntzen ditugu

Artea eraldatzailea dela
uste dugu!



HESI MEDIATIKOA HAUTSIZ

ARTEA: KOMUNIKAZIO KONTRAHEGEMONIKO TRESNA
Espazio publikoa artearen bidez berreskuratzea

Gure testuingurua...

NARKOESTATU BATEAN
BIZI IZAN GARAI!



Emakumeek EZ dugu
osasun integralerako
auterarik



2023AN HONDURASEN 343
FEMINIZIDIO EMAN ZIREN



IA 50 LAGUN HIL DIRA
AURTEN MEATZARITZAN
ETA PALMA
AFRIKARRERAN LANEAN



ORAIN CASTRO
PRESIDENTEA DAGO.
BAINA EMAKUMEAK
HILTZEN
JARRAITZEN DUGU

**ESTATUAKEZ
DU
KONPONBIDE
RIK EMATEN!**

NIK NIRE KONPAK LAGUNTZEN
DITUT ARTEAREN BIDEZ!



BIRZIKLAPENA
ERABILTZEN DUGU
KOMUNITATEARENTZAKO
PRODUKTU BERRIAK
SORTZEKO



Haur eta nerabeen
haundunaldiak
ematen dira
oraindik

**CULTURAS
VIVAS**

espazio publikoan,
artearen eta kulturaren
bidez, haurrekin lan egiten
duen kolektiboa da.

Artista gisa,
komunitateetako
oinarritako
taldeekin lan
egiten dugu.

Etxeke
langileekin lan
egiten dugu,
haientzako
eskubideak
eskafuz

Abortuari eta
osasun integralari
buruzko horma
irudia egingo dugu
ospitalearen
aurrian



ARTEA GIZARTE-BORROKAK
PARTEKATZEKO ETA IRUDIKATZEKO
TRESNA GISA ERABILTZEN DUGU



FUNDADORAS
Hondurasek
emakume batek
egindako lehen
murala da.

ESKERRIK ASKO!

Komunikazioak gizartea eraldatzeko tresna gisa duen boterean sinesten dugu, errealitateak aldatzen laguntzen duena. Horregatik, nola erabil dezakegun komunikazioa eragin politikoa izateko eta irudimenak eraldatzeko espazio horiek proposatzen ditugu, gogoeta egiteko, partekatzeke eta elkar-trukatzeke.

Elkarrekin, ditugun desberdintasunetatik ikasten dugu, gure komunikazio proposamenak indartzeko eta bizitza eta lurraldeak babesten laguntzeko. Sistema bidegabe baten aurrean, gure ahotsak altxatzen ditugu, zapalkuntzak salatzeke eta bide berriak irekitzen ari diren gizarte mugimendu guztien lana ezagutarazteke.

Topaketa hauetan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, gurekin partekatzeagatik eta mundu bidezkoagoa eraikitzen laguntzeagatik.

Mila esker eta borrokan jarraitzen dugu!

